



Ospakizun eta aldarrikapen egunak

Martxoaren 8aren harira ekitaldi ugari antolatu dituzte Andoainen eta Urnietan / 2-3

AIURRI

Sahararen aldeko bertsoak

Hurria-Sahara elkarteak, beste urte batez, elkartasuna eta bertsoa uztartu zituen / 14

Abeslari eta dantzari gazteak protagonista bilakatu ziren Kantari ikuskizunaren lehen edizioan / 7-10

Jon Garmendia eta Xabier Solanoren "Bidasoatik harago" ikuskizuna, hilaren 13an, Urnietan / 15



MARTXOAK 8 EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Eman tokia berdintasunari

Emakumeen eskubideak esparru guztietara zabaltzen jarrai dezagun.





Aldarrikapen-egunak, Andoainen

Berdintasuna eta feminismoa aldarrikatzeko hitzorduz beterik dator asteburua. Askotariko hitzorduak antolatu dituzte Udalak eta herriko eragileek, bereziki, ostegunean hasi eta igandera bitarte

Erredakzioa ANDOAIN

"Genero-desberdintasun estrukturalaren gorakada bizi dugun garai honetan, bizi baldintza duin eta justuen alde" lanean jarraitu behar dela adierazi zuen Andoaingo Udalak, egitarauaren aurkezpenean. Horretarako, zioen Haizea Barandiaran zinegotziak, "ezinbestekoa da begirada feminista erdigunean jartzen jarraitzea, kalean zein instituzioetan". Udalak eta gizarte eragileek elkarlanean, hainbat ekitaldi antolatu dira Andoainen. Tartean, emakumeen afaria eta irradaka emanaldia.

AURTENGO EGITARAUA MARTXOAK 5, OSTEGUNA

Karropoteo feminista
Andoaingo Mugimendu Feministak antolatuta.
19:00, Plaza Moretik abiatuta.

MARTXOAK 6, OSTIRALA

Emakume famatuen erakusketa
Martxoaren 6tik 13ra.
17:00-20:00, Ludoteka.
Antzezlan

"A peine" DesAires konpainia.
Gaztelaniaz. Kultura lansailak antolatuta.

19:30, Bastero Kulturgunea.

Emakumeen afaria

20:30, Goikoplazako karpa. Aurretik eman behar zen izena.



Udal teknikariak eta Barandiaran zinegotzia, aurkezpen-ekitaldian. AIURRI

MARTXOAK 7, LARUNBATA Estutxeak pertsonalizatzeko tailerra

10:00, Ludoteka (4-7 urte).

Emakumeen bazkaria.

Aurretik eman behar zen izena.
Zuenak antolatuta.
14:30, Oianume jatetxea.

MARTXOAK 8, IGANDEA

Emakumeen Irradaka

12:00, Goikoplaza.

Manifestazioa

12:30, Goikoplazatik hasita. Andoaingo Mugimendu Feministak antolatuta.

Bazkaria

Norberak eramanda, Andoaingo Mugimendu Feministak antolatuta. Eguraldi txarrarekin,

Irunberrin. Ondoren: Mojito-tertulia.

14:00, Espigoia.

Ginkana morea

17:30, Gazte Lokala.

MARTXOAK 13, OSTIRALA Antzezlan

"Segunda convocatoria". Gaztelaniaz. Zuena elkarteak antolatuta.

19:30, Bastero Kulturgunea.

MARTXOAK 14, LARUNBATA Pala-topaketa

Buruntzaldeko emakumeen VI. pala topaketa.
Parte-hartze irekia da zaletu guztientzat.
17:00, Arrate pilotalekua.

Hitzordu aipagarriak



Emakumeen afarian jendetza elkartu ohi da. Aurten, martxoaren 6an. AIURRI



Martxoaren 8an egiten den Irradaka partaidetza handiko dantza da. AIURRI



Martxoaren 8an da Mugimendu Feministak antolatutako manifestazioa. AIURRI

**Atal berezia Aiurri.eus
webgunean**
MARTXOAK 8

Albisteak, hitzorduak, argazki-bildumak, bideoak...

Okm:
batzen gaituen
distantzia

Egin zaitez aiurrikide

**AIURRI
KIDE**



Martxoaren 8ko ekitaldiak, Urnietan

Antolatutako ekitaldien bidez, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna aldarrikatuko du Urnietako Udalak, eta horretarako, herritarren parte hartzea sustatu nahi du

Erredakzioa URNIETA
Emakumeen nazioarteko egunaren harira, Urnietako Udalak hainbat jarduera antolatuko ditu. Jarduera horien bidez, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna aldarrikatzearekin batera, herritarren parte hartzea sustatu nahi dute.
Berdintasunaren defentsa eskubide unibertsala da, aitortua eta babestua. Horrexegatik kezka agertu du Udalak, ohar bidez, gizartean antzematen den aurkako erreakzioaren aurrean: "berdintasunean aurrerapausoak

eman ahala, mugimendu antifeministak ere gora egin du, eta hori diskurtso erreakzionario eta misoginoen bidez plazaratzen ari da. Narratiba horien bidez feminismoaren oinarriko konkistak zalantzan jarri, nahasmentua sortu eta indarkeria matxistaren existentzia deslegitimatu nahi dute".
Urnietako Udalak hainbat hitzordu antolatu ditu Martxoaren 8aren bueltan: antzezlanak, elkarretaratzea eta joko feministak. Horiez gain, liburu-gida berezia prestatu dute udal liburutegian.



Ariztimuño udal teknikaria eta Ostolaza zinegotzia. UDALA

Hiru hitzordu datozen egunetan
Honako hauek dira antolatutako jardueren xehetasunak:

La reina del arga
Antzerkia
Remigia Etxarren 1853an Iruñerrian jaioetako funanbulista eta artista izan zen. Antza, ausarta eta arriskuak hartu zituen. Biografia hori du ardatz antzezlanak.

Martxoak 6, ostirala. 19:00.
Lekua: Sarobe.
Hizkuntza: gaztelania.
Sarrera: doakoa.
Elkarretaratzea
Bilkura
Martxoak 8, igandea. 11:30.
Lekua: San Juan plaza.
Jolasak
Joko feministak.
Martxoak 9, astelehena.
Lekua: Gaztelekua.

Urnietako partaideak, Lilatoian



Taldean, lagunartean, partaide ugari irten zen Lilatoian.



Batxilergoko modalitateak:

- Zientzia eta Teknologia
- Giza eta Gizarte Zientziak
- Orokorra

943 89 95 10

BATXILERGOA AURREMATRIKULAZIOA

MARTXOAREN 16TIK 27RA
IKASBIDEAK ELKARREKIN ERAIKITZEN!

ATE IREKIAK
MARTXOAK 12 - 18:00

institutua@hernanibhi.eus

hernanibhi.eus

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA



Babarrunak, pikillo piperrak... eskaintza berria Errigoran

Errigoraren Eskutik Eskura kanpainak beste gisara kontsumitzeko aukera bat eskaintzen digu. Euskal Herri osoa biltzen duen proiektu amankomun baten alde ekoizleak eta kontsumitzaileak biltzen ditu. Balioetan oinarritutako ekoizpen eraldatzaile bat (parte-hartzailea, bertakoa, euskalzalea eta bidezkoa) bultzatzeaz gain, Nafarroa erdi eta hegoaldeko produktuak gure etxeetara jatorrizko prezioan ekartzeko bide bat eskaintzen digu. Gure lurak emandako produktuak kontsumitzeko, eta beraz, herria egiteko aukera bat da.

Berrikuntzak

Azken urteetako eskema errepikatuko dugu aurtengoan

ere: urte guztirako eskaerak egitea da planteatzen duguna eta, hortaz, oliba-olio birjina estra bidai handietan eskainiko dugu eta gainontzeko produktuak 12 unitateko sortetan. Salbuespena dira arroz ekologikoa, ardo-sortak eta arbendolak 6ko lotetan banatuko dena.

Ohikoa denez, hainbat berrikuntza izango dira aurtengoan:

- Ardoa sortetan (6 botilekoak) banatuko bada ere, ekoizle bakoitzak barietatearen arabera eskaintza landuko du (erdi-ondua Azpeak, ondua Lezaunek eta ondu naturala Aristuk).
- Babarrun zuri ekologikoa.
- Pikillo piper zati ekologikoak.

- Arbendolak moten arabera banatutako loteetan eskainiko ditugu 200g-ko 6 paketezko loteetan: batetik, txigortuak gatzarekin eta naturalak bestetik.
- Pasta loteak, 400 g-ko paketeetan ohiko albahaka fustilaria eta belar probentzial zaporedun fustilariei, kotxa txuriak gehitu zaizkie.

Eskaerak

- Errigora.eus. Gure webguneak eskaintzen du eskaerak jasotzeko bide eraginkorra eta sinplea. Beraz, azken urteetan egin bezala, lehentasunez bide hau sustatzen saiatuko gara.
- Telefonoz, Hego Euskal Herritik, 848 87 12 23 telefono zenbakira deituta.

Udalekuetan 2023an jaiotakoak aintzat hartzeko eskaera

Udako aisialdiaren eskaintzan eskaera zehatza egin dio guraso talde batek Urnietako Udalarari

Erredakzioa URNIETA

2023an jaiotako haurren guraso talde batek eskaera formala aurkeztu dio Urnietako Udalarari, 2026ko udako programazioan adin-talde horretako eskaintza aintzat har dezan. Ohar bat bidali dio kolektibo horrek Aiurri astekariari, xehetasun gehiago eskainiz. Gurasoek nabarmendu dute hiru arrazoi nagusi daudela eskaera egiteko. "Batetik, kontziliatzaile premia: ekainean zikloa amaitzean zerbitzu publikoen hutsunea sortzen da. Bestetik, sozializazioaren garrantzia, udalekuak haurrek talde-dinamika eta ikastetxean aurkituko dituzten errutinak ezagutzen hasteko espazio egokiak baitira. Azkenik, azpiegitura egokiak badaudelako".

Euren ustean Lizardi kaleko Egape Ikastolan antolatu daitezke udalekuak, adin horretarako altzariak badirelako eta segurtasun neurriak betetzen direlako.

Ordutegiari dagokionez, gainerako haurrek izango duten berbera proposatu dute: goizeko 10:00etatik eguerdiko 13:00etara, eta horri lotutako zaintza-zerbitzua ere bai (08:30etik aurrera eta 13:30era arteko aukerekin).

Proposamenaren bideragarritasuna aztertzea eskatu diote Udalarari: "Eskatu diogu 2026ko udako deialdian proposamenaren bideragarritasuna aztertzea, udalerriko familia askori irten-bidea emateko eta etorkizuneko urteetan ere aurrekaritzat har dadin".



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:

Etkez ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 55 eurokoa da. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Lide Ruiz Telleria.

Maketatzailea: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetza:

Garbiñe Ugarte Mendia. idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea:

Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

Banatzaileak:

Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, Jeray Gonzalez (Urnietako).

Diseinua: Goiena / TOKIKOM.

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus.

Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALJATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOINGO UDALA



Urnietako udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

Hikuntza Berdintasunerako Zuzendaritza



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BABESLEAK: Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.





Martxoaren 14an zuhaitz-landaketa egingo dute Andoainen. AIURRI

Zuhaitz-landaketa, Andoainen, datorren martxoaren 14an

Eguzki talde ekologistak hainbat hitzordu deitu ditu datozen egunetarako

Xabier Lasa ANDOAIN

Datorren martxoaren 14an egingo dute zuhaitz landaketa Leizaran bailarako Munttoko parajea, Eguzki talde ekologistaren eskutik. Iaz, hainbat naturzale aritu ziren pagoak eta haritzak batik bat landatzen Munttoko lursailetan, goiz partean. Aurtengoan, Otietan, goizeko 09:00etan jarri dute hitzordua. Lanerako tresnak antolatzaileek jarriko dituzten arren, parte-hartzaileek ere eraman ditzakete etxetik. Bestalde hamaiketako eta edaria izango da partaideentzat.

Izen-ematea, zabalik

Bi modu jarri dituzte izena emateko: posta elektronikoz (biolur@yahoo.es) edo telefonoz nahiz whatssapez (688 662 532).

Dokumentala, hilaren amaieran

Martxoaren 25ean Tolosaldeko kobazuloen egoera hizpide duen dokumentala proiektatuko dute Bastero Kulturguneko ekitaldi aretoan. Horrela, 18:45ean, atetik irekiera eta aurkezpena egingo dute; 19:00etan dokumentala emango dute eta, azkenik, 19:30etik aurrera, solasaldia izango da.



Berrasoetan egin zuten zuhaitz-aldaketa, Urnietan. AIURRI

Zuhaitz-landaketa, Urnietan

Asteazken eguerdian, eguraldi ona baliatuta, Urnietako ikasle-taldeak urteroko zuhaitz landaketari ekin zion. Kiroldegiaren kanpoaldean egin zuten hitzordua eta, ondoren, Berrasoeta parkerantz abiatu ziren. Urnietako Udalak antolatu zuen ekitaldia.



Udalak antolatutako ekimenen herriko ikastetxeek parte hartu dute. AIURRI

Laster amaituko da Antia lehiaketan parte hartzeko epea

Erredakzioa URNIETA

Urnietako Udalak Antia literatura lehiaketaren 32. edizioa antolatu du. Haurren mailako lehiaketa 2014 eta 2016 urteen artean jaiotakoei zuzenduta dago. Sari modura, kultura-bonu bana jasoko dute onenek: 200 euroko, 150 euroko eta 120 euroko baliorekin, hurrenez hurren.

Gazteen mailakoan, berriz, 2010 eta 2013 urteen artean jaiotakoei parte har dezakete. Kasu horretan 500, 300 eta 150 euroko diru-sariak banatuko dituzte.

Bi kasuetan, literatura lehiaketa herrikoideei edo bertan ikasten ari direnei zuzenduta dago.

Laster amaituko da idazlanak aurkezteko epea: Azken eguna martxoaren 20a izango da, ostiralekin. Lehiaketa, ohi bezala, Urnietako Udalak antolatu du, "euskara, literatura, sormena eta idatzizko adierazpena bul-tzatzeke xedez".

Nor zen Antia?

On Manuel Antonio Antia XIX. mendean bizi izan zen euskal idazle eta erlijiosoa izan zen. Bere apaiz ibilbidean Urnietan erretore izan zen. Letrei dago-kionez, garai hartako Euskal-Erria eta Euskalzale aldizkarietan olerki, ipuin eta itzulpenak idatzi zituen.



ATE IREKIAK LEIZARAN BHI ANDOAIN

BATXILERGOA. A eta D ereduak Martxoaren 12an, 18:30ean

**Matrikulazioa: Martxoaren 16tik 27ra
(online / aurrez aurre ikastetxean)**

Informazio gehiago
www.leizaran.eus



IES Leizaran BHI
Plazaola kalea, 23
20140 Andoain
943 89 92 59
zuzendaritza@leizaran.net

San Juan jaietarako lepoko zapia egingo du Udalak

Lehiaketa bidez erabakiko da. Hautagaiek hilaren 28a baino lehen aurkeztu behar dituzte lanak

Erredakzioa ANDOAIN

San Juan jaietan zapi bereziak ikusiko ditugu aurten. Andoaingo Udalak dagoeneko lehiaketarako oinarriak argitara eman ditu eta lanak martxoaren 28a baino lehen aurkeztu ahal izan-

go dira. Zabaldu duten informazioaren arabera, Andoainen bizi, ikasi edo lan egiten duten 16 urtetik gorako lagunek parte hartu ahal izango dute; obra horiek, ideia nahiz edukiari dagokionez jatorrizkoak izan

beharko dute derrigor. Edukiari eta gaiari dagokionez, ez dituzte onartuko "edozein motako indarkeriaren aldeko mezurik, ez alderdi politikoena, ez sexu bazterkeria bultzatzen duen adierazpenik ez eta arrazakeria goratzen duen aipamenik ere.

Epaimahaiak hiru lan aukeratu ditu, lehenik eta behin; ondoren, udaletxeko web orrian zintzilikatuko dira hiru finalistak; eta, azkenik, andoaindarrek gogokoena dutena bozkatu ahal izango dute.



San Juan jaiak, artxiboko irudia. AIURRI

Odol-emaleen hitzordua Andoainen, hilaren 9an

Erredakzioa ANDOAIN

Martxoaren 9an, astelehenarekin, andoaindarrek odola emateko txanda izango dute, anbulatorioan, arratsaldeko 16:30etik iluntzeko 20:15ak arte. Egunean bertan, goizez, hitzordua hartu beharko da, 943 007 884 telefonora deituta. Gotatanta.eus webgunaren bidez ere izena eman daiteke.

Batzordea osatzea eskatu du EAJ-PNV alderdiak

Erredakzioa ANDOAIN

Zabalgunea-Amenabar auzia lantzen jarraitzeko batzordea osatzea eskatu du EAJ-PNVk. Aurreko asteko osoko bilkuran iragarri bezala, jeltzaleek batzorde espezifiko bat eratzea eskatu dute. EAJ-PNVk uste duenez "halako tamainako hirigintza-eragiketa baten kudeaketaren inguruan arrazoizko zalantzak daudenean, edozein erakunde publikoren betebeharra da informazio guztia ematea, gertatutakoa zorrotz aztertzea eta, hala badagokio, erantzukizunak argitzea". Jeltzaleen ustean, "ez gaude txikikeria baten aurrean. Duela bi hamarkada baino gehiago hasi zen hirigintza-eragiketa bati buruz ari gara, eta haren ondorioak hasierako kudeaketarekin zerikusirik izan ez duten herritarren gain erortzen ari dira". EAJ-PNVk gaineratu duenez, "eskatutako batzordearen helburua ez da konfrontazio politikoa sortzea, baizik eta gertakariak kronologikoki aztertzea".

24. korrika aek

Euskara gara

21. martxoaren 13. 2024

korrika.eus

BIDASOATIK HARAGO

JON GARMENDIA
ETA
XABI SOLANO

HITZEKIN ETA MUSIKAREKIN JOLASEAN

IKUSKIZUNA

Martxoak 13, ostirala

19:30. 10 €

Salesiarren areto nagusia. URNIETA

AURRE-SALMENTA:
ANDOAIN: Stop, Ernaitza. URNIETA: Kantoi, Bikain, Matxo.



Arratsalde osoan oholta gainera 85 haur igo ziren, euskaraz dantzatzera eta abestera. Ikuskizuna laster ikusgai izango da Aiurri.eus gunean. AIURRI

Kantuan eta dantzan, bikain aritu ziren oholza gainean

Kantari egitasmoaren lehen edizioa egin zen aurreko larunbatean, Bastero Kulturgunean. Euskal kantuak aintzat hartuz, Andoaingo haur eta gaztetxorekin osaturiko 17 talde igo ziren oholzara

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Aisialdiaz gozatzeko hamaika aukera dauden garaiotan, Kantari egitasmoak euskal kantuetan jarri du azpimarra. Erronka, hitz gutxitan, horrela laburbil-

du daiteke: gaztetxoak protagonista bilakatzen dira, baina horretarako kantu baten baitan koreografia asmatu eta abestu behar dute. Eta, hori guztia, jendaurrean erakusteko.

Aspaldian ezaguna da Kantari Debagoienan eta, urteotan, egitasmo arrakastatsua udalerrri gehiagotara zabaldu da. 2026ra iritsita, Andoaingo Udalak bat egin zuen Kantari egitasmoare-

kin eta, Aiurri lankide izanda, lehen edizioa egin berri da. Pozgarria izan da sustatzaile guztientzat, egitasmoak udalerrri osoko gaztetxo askoren arreta bereganatzeaz gain, dozenaka ikusle erakarri zituelako.

"Bertako artista txiki baina handi direnen emanaldia", hitz horiekin deskribatu zuen Kantari Aitor Agiriano egitasmoaren arduradunak. Aurreko Aiurri astekariaren egin zituen adierazpenak. Eskarmentua badu eta ikuskizunaren aurretik egin dako iragarpena hitzez hitz bete zen: "Ikusleen babesarekin seguru nago gure artista txikiak are eta gehiago handituko direla, eta sekulako emanaldia eskainiko dutela". Bada, halaxe izan zela esan daiteke. Banan bana igo ziren taldeak taulagainera, argiz eta irudiz bikain hornituta, eta gogotsu aritu ziren dantzan eta kantuan. Entzulegoak, dena esatera, abestuz eta txalo eginez laguntza handia eman zuen. Gatibu, ETS, Pirritx eta Porrotx, Huntza, Berri Txarrak... jendartearen aski ezagunak diren abestiak ziren guztiak.

Artista izatearen esperientzia horretan, lagungarri izan zitzaizkien Maren Tena aurkezlea. Natu-

raltasuna eman zion saioari, bereziki, emanaldien osteko solasaldietan. Telebista saioa bailitzan, lau emanaldi grabatu zituzten. Eta, hala, lau bideo ezberdinetan zabalduko da Bastero emanaldia. Datozen egunetan izango da, Aiurri.eus webgunearen bitartez. Batez beste, ordu erdiko emanaldiak dira.

Lehen edizio honetan 85 haurrek eman dute izena, 17 taldeetan banatuta: Bost txoruenak, Sorginak, Lau lagunak, Bost izarrak, Izarren taldea, Izar berriak, Izar neskak, Koloretako gela, Dantzariak, Lau futbolariak, Abeslariak, Izargi, Elur panpina, Izarrak, Bost eklipseak, Hiru eguzki izpiak, eta, Kantariak. Haietako askok, geroan ere, oroitu dute oholzara igo zireneko izen artistikoa.

Segida izateko aukera izan dezake Kantarik. Ikusleen artean bazirelako artisten garaikideak eta gazteagoak ziren haurrak. Horietako gehienak amesten ari dira, honezkero, Kantariren edizio berriaren zain.

Kantuan eta dantzan gozatzeko aukera bikaina ematen baitu ikuskizunak. Hori guztia, gainera, euskaratik eta euskaraz.







KANTARI

Laster, Aiurri.eus gunean, saioak osorik ikusteko aukera



Bost txoruenak
Sorginak
Lau lagunak
Bost izarrak

Izarren taldea
Izar berriak
Izar neskak
Koloretako gela
Dantzariak

Lau futbolariak
Abeslariak
Izargi
Elur panpina

Izarrak
Bost eklipseak
Hiru eguzki izpiak
Kantariak



Ubitarte zelaia, artxiboko irudian. AIURRI

Errespetuz aritzeko deia egin du Euskaldunak

Klubaren komunitatea osatzen dutenen artean kiroltasunaren eta errespetuaren aldeko mezua zabaldu du, egunotan. Hango eta hemengo zelaietan ematen diren gertaera tamalgarriak dira komunikazio hori zabaltzeko arrazoia

Jon Ander Ubeda ANDOAIN
"Konpromisoa eta kiroltasuna denboraldiaren azken txanpan" izenburupean, Andoaingo klubak mezua helarazi die jokalariei eta gurasoei. Errespetua galdu behar ez den balorea nabarmendu dute idatzian: "benboraldia bere etapa erabakigarriarantz doa. Badakigu puntuatzeko beharrak lehia-tentsioa areagotzen duela, baina, hain zuzen ere, orain erakutsi behar ditugu gehien definitzen gaituzten baloreak. SD Euskaldunaren zuzendaritzatik gogorarazi nahi dugu gure lehentasuna errespetua dela; gure energia guztia taldea animatzean zentratu behar dugu, jokoarekin zerikusirik ez duten gatazketan arreta galdu gabe". Hori dela eta, klubak zero tolerantzia-politikari eutsi nahi dio jokabide horien aurrean, bai futbol zelaian, bai harmailetan. Hiru dira ohar nagusiak:

- Epaille-taldeari: ez da onartuko mespretxuzko iruzkinik edo errespetu faltarik.

- Aurkariarekiko: Erabat debekatuta dago jokalariekiko, teknikariekiko edo aurkako taldearen familiarrekiko edozein gutxiespen.
 - Diskriminazioa: Ez da onartuko, inola ere, jokabide edo iruzkin arrazista, xenofobo edo sexistarik.
- "Euskaldunako kide izateak gure klubaren izen ona babes-

teko konpromisoa dakar. Eran-tzukizun partekatua da: mezua Ubitartera joaten den edo Andoaingorantz joaten den edo Andoaingorantz kanpo egiten diren joan-etorrietan ordezkatzeko gaituen edozein laguntzaileri zabaltzeko eskatzen dizuegu. Egin dezagun gure jokalarien ahaleginak distira dezala beste ezeren gainetik". Horra, beraz, erantzukizuna hartzeko erregua.



Mojategiko futbol zelaia, artxiboko irudi batean. GOIENA

Mondraren gaitzespen mezua

Goiena tokiko hedabideak gertaeraren berri eman du webgunean. Astelehenean jasotako oharra honako hau da:

Gazte mailako partida baten izandako arrazakeria mezuak eta errespetu faltak gaitzetsi ditu Mondrak

[Goiena.eus | Martxoak 2, astelehena]

Gazte mailako Mondraren eta Andoaingo Euskalduna taldearen artean jokaturako partidaren Mojategiko harmailetan izan zen "eztabaida tamalgarri" baten harira, adierazpen ofiziala atera du Mondrak sare sozialetan. "Mondra futbol taldeak ez ditu onartzen jarrera arrazistak, ezta errespetu faltarik ere. Futbola errespetua, berdintasuna eta elkartasuna da; gure taldean, denok gara berdinak". Otsailaren 21ean jokatu zuten partidua, Mojategin.

Hona hemen sare sozialetan argitaratu duten oharra, osorik: "Klubak modu irmo eta kategorikoan adierazi nahi du bere erabateko desadostasuna eta gaitzespena azken partidaren harmailetan izandako liskar tamalgarriaren aurrean. Gure erakundea errespetuaren, berdintasunaren eta bizikidetzaren balioen gainean eraiki da. Futbola topagune bat da, kulturak, istorioak eta pertsonak pasio beraren pean elkartzen dituenak, eta ezin dugu onartu gorroto ekintzek espiritu hori zikintzea. Gertatutakoak ez ditu gure zaletasunak ordezkatzeko, ezta eguneko kirolarekiko konpromisoa lehia osasungarritik eta baldintzarik gabeko babesetik erakusten duen komunitatea ere.

Gure babes eta elkartasun osoa helarazi nahi diogu eragindako jokalaria, klubaren, taldekideen eta teknikarien erabateko babesa baitu. Berritoki diogu ez dagoela inolako diskriminazio modurik gure instalazioetan. Kontzientziazioa eta hezkuntza ekimenak aktiboki lantzen jarraituko dugu, guztiontzako ingurune segurua, inklusiboa eta errespetuzkoa sustatzeko".

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA



andoaINDARRA
euskaraz

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Bigarren edizioa ate joka dugu. Zein da zuen aldartea, proba iristeko egun gutxiren faltan?

Gogotsu gaude, aurtengoa nola aterako den jakinminez. Berrikuntza batzuk txertatu baititu-gu segurtasuna hobetze aldera eta erakargarriagoa izan asmoz. **Azaldu itzazu aldaketa nabarmenenak.**

Korrika egin beharreko ibilbidean egin dugu aldaketa handiena. Bi itzuliguru egin behar dira, iaz hiru zirenean. Hori bai, ibilbidea aldatu da baina distantzia totala ez. Aurten, Zumea kaletik Miranda pasealekurantz doa korrika egiteko ibilbidea.

Bizikleta gaineko ibilbidean, bestalde, Leitzarán aldeko joan-etorriari eutsiko diogu eta azken txanpa Kaletxikitik igota egingo dugu.

Eta zeintzu dira aldaketak egiteko arrazoiak?

Lasterkariaren ibilbidean, iaz, 3 itzuli egiten ziren eta nahasmena sortzen zen emakumezkoen eta gizonezkoen irteeretan. Ez zen oso txukuna. Ibilbidea luzatzean denentzat erosoagoa delakoan gaude.

Txirrindularitza proban iaz asmo hori genuen baina ez zen posible izan. Aurten, bai.

Proba aurreko testak zer moduz joan dira?

Kaletxikiko azken zatia ez dugu bizikleta gainean probatu, kontrako norabidea delako. Baina aldaketa oso ondo dagoela iruditzen zait niri.

Eta hori guztia egiteko baimenak lortu dituzue? Ez da kontu txikia administrazioekin lotu behar diren baimenak.

Ertzaintzaren azken baimena falta dugu baina hori, ohikoan, egun gutxiren faltan iritsi ohi da.

Partaidetza ona izan zen iaz. Eta, aurten, zer nolakoa izango da?

117 partaide izan genituen 2025ean eta, aurten, kopurua gaitzitzea espero dugu. Euskal Herri osoko partaideak datozkigu: gipuzkoarrak, noski, baina baita gasteiztarak, bizkaitarrak, nafarrak...

Partaide asko. Eta haiek bezain garrantzitsuak dira proba egin ahal izateko boluntarioak eta laguntzaileak.

80-90 laguntzaile beharko ditugula aurrikusi dugu. Korrika aritzeko ibilbidea luzatu dugunez 5-10 lagun gehiago beharko ditugu.

"Erakargarriago izateko berrikuntzak txertatu ditugu"

KOLDO VELASCO ZUMEATARRA TRIATLOI TALDEA

Andoaingo II. Duatloia martxoaren 14an da. Federatu eta open mailako denez, partaidetza interesa duen edonorentzat zabalik dago



Koldo Velasco, Andoaingo Duatloiko zuzendari teknikoa. AIURRI

Interesa duenak gurekin harremanetan jartzea eskertuko genuke (zumeatarrakirroltaldea@gmail.com). Beharrezkoak ditugu eta saritxo bat jasoko dute. **Udalaren laguntza ere ezinbestekoa izango da.**

Lehen unetik baliabideak eskaini dizkigute eta babes handia jaso dugu Andoaingo Udalaren aldetik. Oso pozik gaude haiekin dugun hartu-emanarekin.

Zumeatarra da antolatzailea. Larunbat arratsaldean zuen klubeko kiderik izango al da irteeran?

Lauzpabost taldekide izena emanda daude. Beraz, bai! Zumeatarako kideak izango ditugu partaideen artean.

Zein da proba antolatzeko motibazioziorik handiena?

Lasterkariak gara eta horrela koetan parte hartzeko probak egon behar dira, eta norbaitek antolatu behar ditu. Ikuspuntu hori dugu Andoainen, guri ere proba bat antolatzeko dagokigula uste dugu.

Gaztetxoak ere protagonista bilakatuko dira. Zein modutara parte hartuko dute?

Kadete mailakoek proba berezia izango dute aukeran. Distantzia erdia egingo dute, gutxi gorabehera. Junior mailakoek, berriz, helduen proba egingo dute.

Probari begira, zein litzateke aurrikuspen desiragarriena?

Eguraldi ona egitea, eta ez dala ezer gertatu ibilbidean barrera. Ez dezala inork minik hartu eta denek gozatzeko aukera izan dezatela.

Zer nolako esfortzuaz hitz egiten ari gara?

Duatloia gogortasunarekin lotzen da baina, azkenean, ez da hain gogorra. Zalantzak dituenari proba egiteko gonbita luzatuko nioke. Korrika 5 kilometro dira eta 30 minutuko muga dago. Bizikleta gainean, aldiz, 20 kilometro dira. Maldatsuak, hori bai, baina ordubete azpitik egin daiteke. Eta azken proba, korrika, 2,5 kilometrokoa da.

Egonkortuko da proba Andoainen?

Asmoa hori da. Ea aurtengoa nola doan baina etorkizunean ere antolatzen jarraitzeko asmoa dugu.

Martxoaren 14an da proba. Noiz hasiko gara kirolariak ikusten Andoaingo kaleetan?

Andoaingo II. Duatloia 16:00tan hasiko da eta eguerdirako bertan espero ditugu denak. Partaide batzuk, adibidez, bezperatik datoz.



Gertu izan zuten garaipena

Plastigaur Txiki kadete mailako emakumezko partaidetza liga jokatzeko ari da, eta aurreko larunbatean SOFIA Studioa ISB taldearen bisitaldia jaso zuen. Gertuago dago garaipena maila beretsuko taldeen aurka aritzen direnean.

Aurrekoan 46-55 galdu zuten eta asteburu honetan sailkapenean gertu duten CD Internacional taldearen kantuan ariko dira. Andoainen aurreko asteburuan jokaturako partidaren argazki ikusgarriak daude Aiurri.eus gunean.

Lehiaketa betean da Oreka gimnasia erritmikako taldea

Erredakzioa URNIETA
Lehen denboraldia du Urnieta-ko klubak eta ekimen betean direla esan daiteke. Astez aste, lehiatzen ari dira maila guztietan. Otsailaren 21ean Aresketa torneoan aritu ziren Amurrioko klubeko 3 gimnastekin batera; Maria Otero eta Maren Egurbi-de Jubenil B mailan aritu zen eta Amets Salvador, berriaz, alebin A mailan.
Otsailaren 28an Gasteizeko Itzal txapelketan lehiatu ziren. Kasu honetan, Jubenil B taldea eta Iraia Berasarte aritu ziren. Jardunaldi horretako emaitzak oso positiboak izan ziren, Iraiak 4. postua lortu baitzuen uztaiarekin lanean.
Martxoaren 1ean, bestalde, Sara Lahcenek Hernaniko Benjamin Topaketan parte hartu zuen.
Hurrengo asteburuan beste lehiaketa batzuetan parte hartuko dute. Alde batetik, Bagare txapelketan, eta bestetik, alebinen 2. fasean Azpeitian.

Urnietak Artola Harategiak liderra jasoko du etxean

Erredakzioa URNIETA
Artola Harategia Urnietak Tolosa Eskubaloia B taldearen aurka jokatu du larunbat honetan, arratsaldeko 17:00etatik aurrera. Urnietarrek liderra hartuko dute eta, lau jardunaldiren faltan, gorritxoek garaipena behar dute playoffetarako lehiari jarraitu nahi badute. Lehen itzuliko partidaren UKEkoek puntu bat urratu zuten, beraz, badakite maila altuan lehiatzeko gai direla tolosarren aurka. Kontzentrazio maila altua behar dute: defentsan, intentsitatea eta, erasoan, asmatzea.

Euskaldunak Tolosa jasoko du etxean

Erredakzioa ANDOAIN
Ohorezko erregional mailako taldeak Urkien aurka berdindu ostean, puntu gehiago pilatu nahi ditu. Larunbatean, 16:30etan da partida.

Eskolarteko txirrindularitza proba, igande goizean

Erredakzioa URNIETA
Martxoaren 8an eskolarteko txirrindulari lasterketa antolatu du Andoingo Txirrindulari Eskolak. Azken urteetako joerari eutsiz, Andoingoa denboraldiari hasiera emateko proba da. Aurtengoan, inguruko mutilez gain, Gipuzkoa osoko neskak hurbilduko dira. Benjamin, alebin eta infantil mailako proba bana izango da. Lasterketa, beraz, igande goizean izango da. 10:30ean hasita, Kale Berrian gora eta behera ibiliko dira, Laboral Kutxa eta Banco Gipuzcoano zenaren artean.

Antiguoko-Euskalduna

Erredakzioa ANDOAIN
Emakumezkoetan, Euskaldunak 2-1 garaitu zuen Intxaurdi. Sailkapenean aurretik dagoen Antiguokoren aurka ariko da Dostian, igandean (19:20).



Alex Torreguitart eta Riad Mouaffaq, Tafallan. ABRAHAM DOMINGUEZ

Mouaffaq kickboxerra sendo, K1 mailan debuta egin zuenetik

Tafallan egin zuen debuta, urtebete atzera. Toki berean balentria lortu du profesional mailan

Xabier Lasa ANDOAIN
Riad Mouaffaq kickboxer andoaindarrak iazko otsailean egin zuen debuta K-1 modalitateko maila profesionalean eta, geroztik, sendo ekin dio ibilbideari. Azken lorpena Nafarroan eskratu du, Tafallan hain zuzen. Izan ere, otsailean, Alan Uharte aurkari gogorraren aurka irabazi zuen borrokaldia.
Mouaffaaqekin batera Andoaindik lagun ugari hurbildu zen Tafallara, eta etengabe aritu zitzaizkion animoak ematen, hiru minutuko hiru borrokaldietan. Tafalla Riaden oroimean iltzatuta geratuko da, bertan egin baitzuen debuta.



Riad Mouaffaq andoaindarra. MOUAFFAQ

Boxeoan ere hasitakoa da
Borrokaldietan murgilduta, nabarmentzekoa da boxeoan ere proba egin duela. Hala, profesional berrientzat antolatu zen

borrokaldi batean parte hartu zuen Orion, iazko azaroan. Eskarmentu handiko Oian Perezi egin zion aurre. Txukun aritu arren borrokan, puntutara galdu zuen arren.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Hurria-Sahara elkarteko kideak, gai-jartzailea eta bertsolariak, Bastero Kulturguneko ekitaldi-aretoan. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Hurria-Sahara elkarteak antolatatu zuen saioa, eta Iñaki Otamendi kideak hartu zuen hitza bertsolariek lanean jarri aurretik. Andoainen 16 mila kilo jaso direla elikagaietan, eta Saharatik bi mutiko etorriko direla oporretan iragarri zuen; horregatik, eskerrak eman zizkien herritarri Sahararekin betidanik erakutsi izan duten eskuzabaltasunagatik.

Saharako herriak errepublika askearen aldarrikapena egin zuenetik mende erdia igaro den honetan, nazioarteko testuingurua ez dela batere aldekoa aitortu zuen Otamendik. "Hankaz gora dago mundua, eta Saharan egoerak ez du hobera egin. Frantsismoaren bukaera Espainiak ez zuen abian jarri zegokion deskolonizazio prozesua, eta Marokok okupatu egin zuen Sahara. Saharako batzuk han geratu ziren baina beste askok bonbardapean ihes egin behar izan zuten; egun, ehun bat mila bizi dira errefuxiatuen kanpaleketan. Ondo antolatua daude

Elkartasun kutsuko bertsoak

Sahararen aldeko bertso-aldi biziak kantatu zituzten Maider Arregi, Oihana Iguaran, Joanes Illarregi, Aitor Mendiluze, Maddalen Arzallus eta Aitor Etxebarriazarraga bertsolariek, Imanol Artola "Felix" gai-jartzaileak gidatuta

osasungintzan, hezkuntza-alorrean..., baina Saharara itzultzea da beren ametsa".

Eredugarria dela beren borroka, baina oso egoera zaila daukatela gogorarazi zuen Otamendik, "Espainiako gobernuaren PSOE, Frantziak, AEBk... hango ondasun naturalak nahi dituzte eta Maroko prest dago horretarako; negoziatzen ari dira oraintxe. Autonomiaren antzekoa eskaintzen diete saha-

rarrei, eta erreferenduma egitekotan, Maroko osoan. Gauzak horrela, beraiekin gaudela adieraztea dagokigu guri".

Maider Arregik, Joanes Illarregik, Aitor Mendiluze, Maddalen Arzallus eta Aitor Etxebarriazarragak abestutako zenbait bertso-aldi Aiurri.eus webgunearen bideoen atalean topa daitezke.

Horietako batzuk, idatziz, jarraian:

SEI BERTSOLARIEN AGURRA

Ohi bezala, emanaldiaren hasieran, agurreko bertso bana bota zuten protagonistek.

Aitor Etxebarriazarraga:

Pentsatu izan dut maiz zea, kalimadun hego haizea posible den garaitzea. Mende erdiko zapalketa hau nahi badugu amaitzea, beharrezkoa da zaintzea ta aldarrikapen denak haizera ta kontatzen jarraitzea.

Joanes Illarregi:

Gaur Andoainen bada motibo ugari, Felix gidari izanda gu sei bertsolari. Txiki askok egiten dutenez bat handi. Saharak gaitzat hartuz bagatoz kantari, keinu bat egiteko elkartasunari.

Oihana Iguaran:

Aurten Saharak ja mende erdi basamorturen bidaian. Genozidio ta gerra krimen batzuk onartuak Ayan. Atzo lertu da eskola bat ta enegarren gerra mailan, ta gu herriei kantari gatoz gizatasun hitzak nahian inperioen garaian.

Maddalen Arzallus:

Enaiz quad-ez ibili dunatik dunara Ez tea hartzera sartu turisten haimara. Eder bezala aske nahi zaitut Sahara. Nere hondar alea nere bertsoa da. Ongi etorri denoi oasi hontara (bis)

Aitor Mendiluze:

Agur bat denoi eta haiei ere bidali nahiko nieke. Ni jaio nintzen urtetik hona zenbat borroka, ze neke. Halere ez da eskakizun bat behar den bezela bete. Zenbat ekintza, zenbat jaialdi, ia pentsatu liteke: ez al dagoen dena esanda baina dena egiteke.

Maider Arregi:

Bart Israelek Iran jo du alderik alde. Trampi irtengo zaio babestea debalde. Saharan egoera bortitza da bestalde, kanpamenduak baitira jendearen etxalde. Herri kolonialistak baldin badira talde kanta dezagun beste behin resistentzien alde.

Arzallus eta Arregi, ama-alabak

Gaia: "Ama-alabak zarete. Maddalen ama eta Maider alaba. Etxe berean bizi zarete, eta Maiderrek ekarri izan du ligeren bat edo beste tarteka. Azken aldian, maizago. Ama saiatzen da alabaren bizitzan ez sartzen,



Maddalen Arzallus eta Maider Arregi. AIURRI

baina ama, ama dun eta ezin beti isilik geratu. Bart, bi lagun ekarri ditu etxera".

Maddalen Arzallus:

Amaren aholkuak hartzen ditu aintzat, eta ematen ditu fruitu ta emaitzak. Bi ekarri dituzu, izango zen behintzat bat zuretzako eta bestea neretzat (bis).

Maider Arregi:

Ama bide hori, ya! egon zaitez lasai. Etxera ekarri ditut nik bi lagun alai. Zuretzako beste bat nahiko zenuke, bai, baina eurek zurekin fijo ez dute nahi (bis).

Maddalen Arzallus:

Ene erantzun horrek, a ze angustia, masaila geratu zait malkotan bustia. Maider, ama daukazu goxo eta ezia. Nik erakutsi dizut dakizun guztia (bis).

Maider Arregi:

Bai, ama izan zara zu oso txukuna. Baina nik ekarri dut etxera laguna. Nahiz ta esan didazun maiz uste duzuna, nik ikasi dut zer den polimaitasuna (bis).

Maddalen Arzallus:

Ai polimaitasuna zenbat festa ta jai! nik ere ari nahi dut ui ui, ui, ai, ai, ai! eta ez naiz egongo ate ondoan zai, hiru sartzen zarete

beraz lau ere bai (bis).

Maider Arregi:

Ai, ai, ai eta ui, ui eta ui da zure eskema. Ama, isildu zaitez eta ez izan pelma. Zurea eta aitarenak ematen du pena beraz etzazu egin irekiarena (bis).

Maddalen Arzallus:

Pixkat irekitzea dudanez helburu Maider, jarri gaitezen biok buruz buru. Ama-alabok ohean jolastuko dugu, aita-semeak tabernan utziko ditugu (bis).

Maider Arregi:

Amak derrepentean ze energia txute, horrelakoa sarri izan nahi genuke. Erakutsi didazun jarrera horren truke logelako leihoan ate bat nahi nuke (bis).

Maddalen Arzallus:

Zure ondoan nahasi egin zait sabela ta umorea ez daukat triste ta goibela. Benga, jolas dezagun, oroitu horrela, zu ere nere leihotik atera zinela (bis).

Maider Arregi:

Etzen beharrezkoa hori esatea, gaizki sartu zait ta ezta kasualitatea. Lagunekin nago ta zuk eman pakea, zugandik soilik nahi dut intimitatea (bis).

Garmendiak eta Solanok ondutako ikuskizuna

"Bidasoatik harago" Euskal Herrian barrena aurkeztzen ari dira bi artista ezagunak eta hurrengo geldialdia Urnietan izango da. Zehazki, martxoaren 13an, Salesiar ikastetxearen areto nagusian. Korrika Kulturalaren baitan antolatutako emanaldia da

Jon Ander Ubeda URNIETA

Aski ezagunak dira Jon Garmendia "Txuria" eta Xabier Solano, ibilbide oparoa egin baitute euskal kantagintzan. 30 urte dira elkarrekin kantu ezagun ugari sortu dituztela. Garmendia izan ohi da letragilea eta Solano, berriz, doinuaren sortzailea. Etzakit, Esne Beltza... ereserkia ugari sortu dituzte elkarrekin urteotan guztietan.

Oraingoan "Bidasoatik harago" ikuskizunak batu ditu. Ipuin laburrak eta poemak, trikitixa eta gitarrarekin lagunduta, kantuekin apaindutako ikuskizun bat da. Sortzaileen hitzetan, "hegoaldetik iparraldera eta iparraldetik hegoaldera Bidaso ibaian barrena, hitzekin eta musikarekin jolasean arituz entretenimendu aberasgarri bat".

Korrika badatorrela, auzolanean antolatu da "Bidasoatik harago" ikuskizuna. Korrika Batzordea, AEK, Manttale eta



Garmendia eta Solano. BIDASOATIK HARAGO

Aiurri elkarlanean antolatzen ari dira saioa. Adi, ikuskizuna martxoaren 13an izango da Salesiar ikastetxearen areto nagusian. Iluntzeko 19:30ean hasiko da.

Urnietan Bikain kafetegian eta Kantoi eta Matxo tabernetan salgai daude sarrerak. Andoainen, berriz, Stop eta Ernaitza liburutegietan. 10 euroko prezioan salgai daude.

Max Sarietan hautagaia da Aukeran Dantza Konpainia

"Amama"rekin, Muruamendiarazen konpainiak 3 hautapen jaso ditu Max Sarien 29. edizioan



"Amama", Aukeran dantza konpainiaren ikuskizuna. AMAMA

Erredakzioa URNIETA

Max Sariak estatu mailan urtero banatzen dira, arte eszenikoetan egiten diren lan esanguratsuenak saritzeko. "Amama" euskal ikuskizunaren baitan, 3 izan dira jasotako hautagaitzak. Lehena, ekoizpen pribatuko diseinu onenari. Bigarrena, besetik, Maier Muruamendiarazek jaso du, dantzako emakumezko interprete onenagatik eta azkena, Kimetz Cabanillasek, gizonetzko interprete onenagatik ere.

Edukiari dagokionez, ikuskizuna haurren unibertsora egin-dako bidaia poetiko eta berri-tzailea da. "Amamak" ipuin tradizionalak eta euskal dantzak uztartzen ditu, zazpi ipuin ko-reografiaturen bidez. Ekitaldia datorren ekainaren 1ean izango da Meridako Erromatar Antzokian.

AGENDA

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

MARTXOAK 8

ANDOAIN, URNIETA Hitzorduak
Datozen egunotako hitzorduak.
2-3. orrialdeak.

EUSKARA

ANDOAIN, URNIETA Errigora
Elikagaiak eskatzeko kanpaina berria.
Errigora.eus
Azken eguna: martxoak 18.

MUSIKA

URNIETA Bidasoatik harago
Jon Garmendia eta Xabier Solano,
Korrika Kulturalaren eskutik. Sarrerak
salgai Urnietako Kantoin, Bikainen eta
Matxonean. Andoain, Ernaitzan eta
Stopen.
19:30, Salesiar ikastetxea. 10 euro.
Martxoak 13, ostirala.

ANTZERKIA

ANDOAIN "A peine"
DesAires Teatroa konpainiaren
eskutik.
19:30, Bastero. 6 euro.
Martxoak 6, ostirala.



Edurne Azkaratek zuzendutako antzezlan da. METROKOADROKA

URNIETA "Bi baso bat ur"

4 pertsona dantzaleku baten erdian. Lauak guztiz geldi daude, jende guztia
dantzan dagoen bitartean.
Aktoreak: Intza Alkain, Iraia Elias, Javier Barandiaran, Marina Suarez.
19:00, Sarobe. 7 euro. Martxoak 15, igandea.

ERAKUSKETA

ANDOAIN Malen Agirre
"Marraztu gabeko irudiak",
paisaia emozionalak.
Ohiko ordutegia,
Bastero Kulturgunea.

HITZALDIA

ANDOAIN Kurrioloen migrazioa
Jose Luis G. Quintas ornitologoaren
eskutik.
19:00, Euskalduna MTren egoitza.
Martxoak 10, asteartea.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN Zuhaitz eta Hegoa
Zorionak bikote! 6 eta 3 urte, handitzen-
handitzen. A ze lehengusu pare, ze ondo
moldatzen zaren ta zeinen ongi pasatzen
duzuen elkarrekin. Segi horrela elkarrekin
gozatzen eta elkar zaintzen. Izugarri maite
zaituztegu!!!



ANDOAIN Alaia
Martxoaren 8an,
14 urte betetzen
dituzu.
Zoriontasunez
beteriko egun bat
pasatzea opa
dizugu. Jarraitu
horrela! asko
maite zaitugu
txikitina!
Etxekoak

ZORION-AGURRAK, AIURRIIN diseinua@aiurri.eus


Mezua bidali Aiurriko posta elektronikora, eta
idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna
eta nahi duzun testua. Etor zaitetz, bestela,
Aiurriko erredakziora: Arantzibia plaza 4-5,
behea. Andoain.

ZINEMA



ANDOAIN
BASTERO
Baba Yaga y el libro de hechizos
Larunbata, 7. 17:00.
Igandea, 8. 17:00.
Tres adioses
Larunbata, 7. 19:30.

Igandea, 8. 19:30.
Astelehena, 9. 17:00,
19:30.
Marty Supreme
Larunbata, 14. 19:30.
Igandea, 15. 19:30.
Astelehena, 16. 17:00,
19:30.



SINOPSISIA

Tres adioses
Zuzendaria: Isabel Coixet. **Aktoreak:** Alba Rohwacher, Elio
Germano, Francesco Carril, Sofia Delia... **Generoa:** Drama.
Herrialdea: Italia. **Iraupena:** 122 minutu. **Sinopsia:** Marta eta
Antonio banandu egin dira. Gizona sutegetan babesten da; Marta,
bere isiltasunean, tristura baino zerbait gehiago nabaritzen hasten
da.

ZOKKETA

IKUSKIZUNA

Aiurriko harpidedun
izateak saria dakar

**AiurriKIDEen artean
2 sarrera zozkatuko ditugu**

Parte hartzeko modua:
Idatzi **"BIDASOA"**, zure izen-abizenak eta bidali:
* Whatsapp: 619 163 537
* E-posta: diseinua@aiurri.eus

Okm:
batzen
gaituen
distantzia

Egin zaitetz AiurriKIDE

**AIURRI
KIDE**

BIDASOATIK HARAGO

Jon Garmendia - Xabier Solano

Martxoak 13, ostirala
19:30, Salesias ikastetxea
URNIETA

Ipuin laburrak eta poemak, trikitixa eta
gitarrarekin lagunduta, kantuekin apaindutako
ikuskitun bat da Bidasoatik Harago